

Eguneroko bizitzan, hainbat **seinalek** erakartzen dute gure arreta, eta **garrantzitsua da horiek ezagutzen eta interpretatzen jakitea** gure helmugara iristeko.



Finantza-produktuekin gauza bera gertatzen da. Kontratatzan ditugunean, bide bati ekiten diogu, eta bide horren helmuga **gure diruari ahalik eta etekin handiena ateratzea** da. Horregatik da hain garrantzitsua gidatzen gaituzten seinaleak interpretatzen jakitea.

LABORAL Kutxatik lagundu nahi dizugu seinale horiek zein diren eta nola funtzionatzen duten ikasten, eta hasteko modurik onena seinalerik baliagarri eta ohikoenetako bat aztertzea da.

ARRISKU-ADIERAZLEA

1 / 6

Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak handiena.

Izenak berak adierazten duen bezala, begiratu batean **finantza-produktu jakin batzuk kontratatzeak dakarren arriskuaz ohartarazten** gaitu arrisku-adierazleak.

Oso erraza da interpretatzea.




1etik 6ra bitarteko eskala bat oinarri hartuta, zenbakitzaileak produktuaren arrisku-maila adierazten du, izendatzaileak adierazten duen maximoaren (6) gainean.

Esate baterako...


Produktu errazetan, hala nola aurrezki-kontuetan, adierazleak esango dizu haren arriskua **1/6 dela, hau da, minimoa**.

Baina beste **produktu konplexuago batzuetan**, adierazlea **6/6 izan daiteke, hau da, maximoa**, adibidez akzioetan.



1 / 6

Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak handiena.



6 / 6

Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak handiena.

Kasu bereziak

dira beste produktu batzuk, **inbertsio-fondoak**, kasu: haien izaera eta arriskua direla eta, indize berezia dute, 1etik 7ra bitartekoa.



Horrez gain, beste datu garrantzitsu batzuen berri ematen dizuten **alertek osatzen dute** arrisku-adierazlea.



Produktuak **likidezia-mugak** baditu (epearri edo salmenta aurreratuen arriskuari dagokionez), **giltzarrapo bat edo bi** ikusiko dituzu seinale gisa, dagokion azalpenaren ondoan.



Produktu konplexua bada, gainera, **harridura-marka** erantsiko da. Horrek esan nahi du finantza-produktua ez dela erraza eta zaila izan daitekeela ulertzen.

LABURBILDUZ:

ARRISKU-ADIERAZLEAri esker, mota bereko bi produktu konpara ditzakezu, **hiru ikus-seinale errazen bidez**.




Gogoratu hauei erreparatzea:

1. Zenbakitzailea
2. Giltzarrapoak
3. Harridura-markak

Hemendik aurrera, finantza-produktuen lehen sailkapena egin ahal izango duzu, haien arriskuaren arabera.

Baina, beti esaten dizugun bezala,



ZER KONTRATATZEN DUZUN JAKITEA DA GARRANTZITSUENA

Hortaz, zalantzaren bat baduzu, **zure esanetara gaituzu**, beti bezala, zure bulegoan edo Online Bankan laguntzeko prest.

